



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ALKIZA Udal-Info 2.0.

2013ko maiatzaren 10

### HONDAKINAK KUDEATZEKO UDALAREN PLANTEAMENDUA (2013ko apirilaren 19an Herri Bileran azaldutakoaren laburpena)

Aurreko ostiralean (apirilaren 19an) Herri bilera ospatu genuen “**Alkizan zer egingo dugu hondakinen arazoarekin?**” Udalaren helburuak eta proposamenak aurkeztu eta aztertzen hasi” gaiarekin eta hogeitabost-bat lagun elkartu ginen. Bertan Udalaren helburuak eta plana azaldu genuen eta sortu ziren zalantzak eta galderak aztertu genituen.

Denek planteamenduarekin bat etorri ginen, beraz martxan jarriko gara!!!

#### **SARRERA. Helburuetan tinko, moduetan eta epeetan malgu**

Zalantzak argitzeko, ikasteko, praktikatzeko eta probarako tartea egotea planteatzen dugu

Beti ere:

- aurreritziarik gabeko jarrera batetik abiatuta eternizatu gabe, epe-muga batzuk jarritz;
- bailabideak (Mankom.) kontuan hartuta eta inguruko herriekin koordinazioa mantenduz;
- ekonomikoki jasangarria izango dela ziurtatuz.

#### **PLANTEAMENDUA. Ahal den simple eta errazena (erotu gabe!)**

Lehendik ere asko eta askok egiten dutena egiten jarraitu (etxe eta baserri askotan organikoa aprobetxatzea zer den ondo dakitelarik –konpost/baratza edo animaliei), apur bat antolatua goa eta gaurkotuagoa, nahi baduzue.

Arduraz eta zintzo jokatzeko eskatzen duena, honen arabera *boluntario-behartuta* proportzioa.

#### **EZARPENA. Moldagarria eta dinamikoa: helburura iristeko modua doitu**

Helburuak eta posibilitateak kontuan hartuta eta dena batera egin gabe faseetan

- aurkitutako abantailak eta arazoak jaso (jakin arazi, galdetu);
- egindakoa aztertu eta ebaluatu (3 hilabetera, 6 hilabetera, ...);
- aldatu, egokitu edo sendotu behar dena hala egin.

Fase batetik bestera aurrekoaren ebaluazioaren ondoren

#### **HELBURUA.**

Gaur egun bereizi gabe aprobetxatzen den hondakin guztiaren %75 inguru hori, beste erremediorik gabeko gutxieneko batera jeitea (% 10-20). Beraz:

- berrerabili eta erreziklatu daitekeen gehiena aprobetxatzea, %80-90era iristeko.

Herritik kanpo beste inora (zaborteigira edo errauskailura, berdin) ahal den gutxien bidaltzea:

- zabor biltzea egiten duten kamioak (errefusarena) ahal den gutxien etortzea.

Ekonomikoki jasangarria izatea udala eta herritarrentzat (ondorioz).

Inguruko herriekin eta mankomunitatearekin koordinatuta.

Antolakuntza ahal den eta **autonomoena** izatea (bakoitzak berea ondo egin).

**Obligazioa edo kontrola <--> norberaren ardura eta autoexigentzia**

## PROPOSAMENA:

**Organikoa** (janari hondakinak, baratzetakoak, lanadareenak eta abar):

**Osorik herrian bertan kudeatzea autokonpostajearen bidez inora bota gabe.**

Familia bakoitzeko konpostagailua

Pisuko etxeetan auzo konpostagailuak (edo familiakoak gune kolektiboetan)

Taberna/jantoki eta horrelakoentzat soluzio espezifikoak beraiekin adostuta.

**Erreziklagarriak** (papera/kartoia, ontzi arinak: metala/plastikoa, beira, best)

**Hobeto eta gehiago bereizi eta dagokion lekuan bota (zaborrara ez bota).**

Gaur egungo 3 kontainerrak erabiltzen jarraitu (+arropakoa, + olioarena, + ...)

**Beste batzuk aprobetxagarriak** (haundiagoak, beste motatako plastikoak, ...)

**Hobeto eta gehiago bereizi eta zaborrara ez bota.**

Garbigunera

(txikienak agian herrian jaso, Udalak Garbigunera batera eramateko)

**Errefusa** (aurrekoetan sartzen ez den beste guztia, aprobetxatu edo erreziklatu ezin daitekena)

**Gehien gutxitu.**

Errefusantzako aparteko kontenedorea (bakarra) jarriko da.

## FASEAK

### 1.- Kudeaketa sistemaren azalpena eta azterketa.

Herri bilera. Informazioa zabaldu. Eztabaidatu.

Iradokizunak eta galderak jaso.

### 2.- Konpostagailuen ezarpena.

etxe eta jantoki/taberna edo lantegi bakoitzarentzat proposamen zehatza egin.

etxez etxe azalpenak eta instrukzio zehatzak eman.

etxez etxe konpostagailuak ipini eta funtzionamendua azaldu

Orduan hasi organikoa zaborrara ez botatzen, ezerez botatzea guztiz lortu arte.

(bide batez, errefusantzako kontenedorea erabiltzen hasi)

### 3.- Organikoa guztiz zabor ontzitik konpostagailura.

Zabor orokorraren kontenedoreak itxi.

Errefusantzako kontenedore bakarra utzi (panel informatibo batekin)

Besteetan ere panel informatibo zehatzak jarri bakoitzean zer bota behar den jakiteko.

Erreziklagarrientzako kontenedoreak gaur egun bezala mantendu

### (4.- Ekarpen guneak antolatu dena jasotzeko (Orendaineko ereduaren antzera) AGIAN)

Aurreko fasearen emaitzak ikusita aztertu beharrekoa.

## Zerekin hasiko gara maiatzan:

Lehenengo fasearekin: **informazioa.**

- **OROKORRA.** Galderak eta iradokizunak jaso: udal langileek edo A21 teknikariak (Alaitz). Aurrera joan ahala horri informatibo osoagoak, plangintza data zehatzak, bilerak, eta abar.

- **ERREZIKLAJEA.** Maiatzan erdialdean erreziklaje kanpaina egin: zer, nola, non, ... azaldu eta erakutsi (erakusketa, tailerra, hitzaldia). Honekin batera doan bandoak informazio osoa du.

- **KONPOST.** Etxe guztien zerrendak Mankomunitateari pasa (izen eta telefono zenbakia). Pisuetako eraikinetakoak non jarri, taberna eta jantokikoak aztertu, beste kasu bereziak ere.